



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2008/2009 denboraldia

10 ZK.DUN ZIRKULARRA

KADETEEN EUSKAL LIGA

Euskadiko Futbol Federakundeak Kadeteen Euskal Liga antolatuko du 2008/2009 denboraldian, ondorengoei jarraiki:

1. Parte hartuko dute klubak

D. Alaves, Antiguóko K.E., Arenas C., Athletic C., Barakaldo C.F., Cultural de Durango, Danok Bat C., S.D. Eibar, Indautxu S.D., Laudio San Rokezar C.F., Peña Athletic Santurtzi C.F., Real Sociedad de Fútbol, Romo F.C., San Ignacio C., Santutxu F.C., Tolosa C.F.

2. Lehiaketa sistema

Multzo bakarrean, puntuetara eta itzuli bitan, hogeita hamar jardunalditan, guztira egingo da lehiaketa, eta Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorreko xedapenak aplikatuko dira.

3. Partiden data eta ordutegiak

Lehen itzulia: irailaren 14, 21 eta 28; urriaren 5, 12, 19 eta 26; azaroaren 2, 9, 16, 23 eta 30; abenduaren 7, 14 eta 21.

Bigarren itzulia: urtarrillaren 4, 18 eta 25; otsailaren 1, 8, 15 eta 22; martxoaren 1, 8, 15, 22 eta 29; apirilaren 5, 19 eta 26.

Partidak larunbat aurreratu ahalko dituzte talde antolatzaileek, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

Esan be ordutegi zero bat jarri dala, beraz partiduak 10,30etatik-13,00etara eta 15,30etatik-18,30etara bitartean jokatuak izan beharko dute, logikoki burukatzen duten klubuen arteko akordioa izan ezik.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

4. Sailkapen ondorioak

Sailkapenean 13, 14, 15 eta 16. amaituriko taldeak jaitsiko dira lurralde ligetara.

Orobat, lurralde ligetan lehenengo postua lorturiko taldeak igoko dira Euskal Ligara, bai eta igoera faseko irabazlea ere. Igoera fasean liga horietako bigarren amaiturikoak lehiatuko dira, hiru batean sistemaren arabera.

5. Ordezpenak

Partidetan, gehienez bost futbolari. Gehienez zazpi balizko ordezeko egon ahalko da, eta partida hasi baino lehen, horien izenak eta titularrenak jakin beharko ditu arbitroak.

6. Arbitroak

Partida jokatzen den lurraldeko federaziokoak izan beharko dute. Batik bat Lurralde Maila Goreneko arbitroek zuzenduko dituzte partidak.

7. Diziplina Araudia

Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Araudiak arautuko du lehiaketa, eta gerta daitezkeen gorabeherak Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina eta Apelazio batzordeek ebatziko dute.

Eta horren berri ematen da, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2008ko irailaren 2n.



JON ANDER GAMBOA AGUIRRE
Secretario General